


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

SAN FRANTZISKO 14



Egile eta data ezezagunak
(Ez dago espedienterik Udal Artxiboan)

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, behe oina, lau goi oin eta hiru jasodura dituena, lehena fatxada planoan eta bigarrena eta hirugarrena atzeraemanak. Hareharrizko harlanduzko fatxada, zati batean aldatua eta behe oinean zati batean entokatua. Hormigoizko begiratoki bikoitza bao zentraletan.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (6. eta 7. goi oinak).
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak, behe oineko baoen konfigurazio unitarioarekin loturikoak barne.